




ARRASATEKO UDALA

Bizkaiko Urtxintza
Eskola

5. alea

2002-Urtarrila

HEZKIDETZAN
Pausoz pauso

Paso a paso
En la COEDUCACIÓN



ZAPATUEN



GAZTENAHASTE



Mutil kuadrila bat arratsaldero bezala elkartzen da. Mutil baten neska-laguna bere mutilarengana hurbiltzen da. Mutilak harrotasunez bere lagunaren aurrean neska barregarri uzten du.

Hurrengo egunean neskarekin bakarrik dagoela zenbateraino maite duen adierazten dio.

Zer dela eta mutilaren aldaketa hori? Mutilek ere sentimenduak dituzte eta ez dira zertan lotsatu behar.



Neska kuadrila bat soka saltoan jolasten dabil. Mutil bat hurbiltzen da eta jolastu dezakeen galdetzen die. Neskek 2 aldiz pentsatu gabe mutilari barren egiten diote. Mutila lotsaturik aldendu egiten da.

**ZER DELA ETA BI SEXUEN ARTEKO TIRABIRAK?
EZ LITZATEKE HOBETO IZANGO INOR ALBORATU GABE
IBILTZEA?**

Mutilen eta nesken artean gai desberdinak al daude?
Baleude, sailka itzazu ondoko zerrenda honetan:

Gaiak: Futbola, autoak, prentsa-arrosa, musika, zinea, ikasketak,
dantza, juergak, aerobika,... Burura datorkizun gaia gaineratu.

M u t i l a k

N e s k a k

Zerk bultzatu zaitu hautaketa hau egi-
tera? Zergatik?



**- Edozein egoeraren aurrean nor aukeratzen duzu aholkulari gisa?
Zergatik?**

**- Berdin hitz egiten al duzu zure arazoetaz neska edo mutil batekin?
Zergatik?**

- Egunerokotasunean neska eta mutilak batera ibiltzen zarete? Zergatik?

- Posible deritzozu mutil batek lagun min bezala neska bat izatea eta alderantziz? Zergatik?



- **Pertsona bakoitzak gustu propioak ditu.**

- **Sexuak ez ditu gustuak mugatu behar.**

- **Gustuak pertsonak berak mugatu behar ditu.**

- **Denok izan behar dugu eskubidea gustoko ditugun ekintzak, harreman eta pentsakerak nahi bezala burutu eta adierazteko.**